



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xendazaletasun atala
105. zka. 5 euskal hiribururen 16. Zeharkaldi Handia	Murua-Orozko / 2009-05/10-11

Adiskide xendazaleok:

Gasteizera iritsita, gure hurrengo helmuga nagusia Bilbon izango da. Horretarako, hiru ibilaldi egin beharko ditugu. Eta lehenengo hau Arabako Murua herri txikitik abiatuko da; Zigoitiako Udalekoa da, 7 zubi ditu eta herriko jaiak, San Antonioren omenez, ekainaren 13an izaten dira.

Oraingoan tontorrez tontor Baltzolaga (850m), Gongga (1062m), Pagazuri (1341m) zapalduko ditugu eta bizkar leunenak dituen hegoaldeko aurpegi honetatik eguneko kotarik gorenera iritsiko gara, eta bitartean pagadi eder, goi-larre, basabere, ikaztobi eta, batez ere, ongi kontserbaturiko lekuan egoteak sortzen duen sentipen atseginaz gozatuko dugu.

Gorbeiak 1.482 m-rekin bista edo ikuspegi paregabeak ditu. Bere historian hiru gurutze izan ditu gailurrean. Azkeneko hau 1907. urte-hasierakoa da eta Serapio de Goikoetxea y Palacio lantegian egin zen. 1931-6-14ko orientabide-mahai eder bat ere badu, 106 mendiren berri ematen duena; Lucio Lascaray-k pentsaturiko proiektua izan zen.

Gero Egiriñaoko aterpetxeraino jaitsiko gara, eta, ezkerrera Urratxa haitza (1062m) eta eskuinera Aldabe eta Gorosteta (1177-1259m) utzirik, bidezidorrak Austingarmineko kortaraino eramango gaitu.

Hemendik Oderiaga (1243m) tontor txikira igoko gara, eta gero jaitsiera luze baina eroso bati ekingo diogu, lurrazala ibilerraza baita. Ubitxeta (1108m) eta Kolometa (1007m) gainak gure bidetik oso hurbil ikusiko ditugu, Kurtzegain (659m) mendi-lepoaren bila goazela, eta honek bere postearekin adieraziko digu Beraza auzoko San Miguel basilikatik hurbil gaudela, baita gure gaurko helmuga den Orozkotik ere.

Ibilaldi hau bere ezaugarriengatik eta presarik gabe egiteko, mendizaleen estilo garbi-garbian egingo dugu. Bakoitzak bere hornigaiak eraman behar ditu eta hamaiketako eta bazkari-legea ibilbidean bertan egingo ditugu.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Murua-Orozko

Beharrezko denbora		6,30									
Goranzko desnibel metatua		1.250 metro									
Beheranzko desnibel metatua		1.675 metro									
Zeharretara egin beharreko distantzia		24.220 metro									
	Inguru nea	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzua	4

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:00
Irteera-ordua	07:05
Prezioa	8 euro

Izena emateko azken eguna: 2014-05-8ko 12etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailerik, irteera bertan behera geratuko da.

B/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es/jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-Lorenzo Urretabizkaia

